



# SALEROSKETAREN BIKTIMEN ESKUBIDEAK ETA INFORMAZIOA

PROSTITUZIOA ESPAINIAKO ESTATUAN  
**EZ DA DELITUA**

SEXU-ESPLOTAZIORAKO EMAKUMEAK  
SALEROSTEA  
**BADA DELITUA**

Nafarroako  
Gobernua



Gobierno  
de Navarra

Nafarroako Berdintasunerako Institutua  
Instituto Navarro para la Igualdad



# SALEROSKETA ZER DEN

Zure herrialdetik iruzurpean edo diru errazaren edo lan promesa faltsuen pean, edo bikote harreman faltsu bat aginduta ekarraraztea, baliatuz bizimodu hobea behar duzula zuretzako eta zure familiarendako eta prostituzioan aritzera eta dirua haiei ematera behartzea.

## LITEKEENA DA SALEROSKETAREN BIKTIMA IZATEA, **ONDOKO KASUETAN**

- Iruzurra egin dizute: lan baten promesa egin zizuten eta ez zara lan horretan ari.
- Indarrez ari zara lanean, eta baldintzak abusuzkoak edo esplotaziozkoak dira.
- Esaten dizutena egiten ez baduzu zuri edo zure familiari kalte eginen diotela esanez mehatxu egiten dizute.
- Ez dizute uzten dirua edo zure agiriak (NANA, pasaportea...) soinean eramaten.
- Zorra ordaindu arte lan egin behar duzu.
- Ezin duzu joan nahi duzun tokira, askatasunez eta ezin duzu lanez aldatu, hala nahi baduzu.

Salerosketaren biktimek egoera horretatik nola atera jakiteko informazioa **beren hizkuntzan** jasotzeko **ESKUBIDEA** dute, **baita paperik ez badute ere**.

Nafarroan badira **DOAKOAK** diren erakunde sare eta zerbitzu espezializatuak. Aholkuak eta iradokizunak aurkituko dituzu hemen:

- Egoera administratiboa: pasaportea, egoitza eta lan baimenak, familia berrelkartzea, etab.
- Osasun txartela eta osasunaren zainketa.
- Prostituziotik ateratzea (ostatua, jana, prestakuntza, lana).
- Laguntza psikologikoa.
- Babes poliziala.
- Aholkularitza juridikoa, salaketa paratzeko asmoa baduzu.

## LAGUNTZA ESKATZEN BADUZU

- Ez duzu kritikarik jasoko prostituziora dedikatzeagatik edo engainatua izateagatik.
- Denbora izanen duzu erabakitzeko tratulariak salatuko dituzun.



LARRIALDIAK  
SOS-Nafarroa



**112**

